



Astekaria



elgoi

X. NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Errumania, Taiwan eta bertakoak



AZKUE



MULTI-OPCIONi esker

*Inoiz ez da horren Erraza izan **FORD Berri** bat *Erostea**

Adibidea: **Fiesta Surf 1.1**

Sarrera - - - - - 274.750 pta.

Hilero - - - - - 15.317 pta.

Epea - - - - - 24 hilabete

V.F.M.G. - - - - - 646.000 pta.



Automoviles Lerun

Zerbitzu Ofiziala

ONGI ETORRI dotoretasun eta puntako teknologiarara.

ONGI ETORRI erosotasunera.

ONGI ETORRI erabateko segurtasunera.

ONGI ETORRI familia handi batera.



Eibar Motor, S.A.



Autos Eibar, S.A.

GRUPO OTOLA

Otaola etorbidea, 17 - Tel.: 10 00 60 - 10 36 42* - 20600 EIBAR

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.700 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa funtzionala
Fundación Kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Zazpiak bat

Historiari begiradaxo bat botatzen badiogu, berehala ohartuko gara, euskaldunok gaur egun bizi dugun egoera, bi estatutan eta hiru administrazioetan banatuta egotearena, ez dela berria guretzat.

Lehenengo informazio idatziek diotenez (Estrabon, Plinio Zaharra eta abarren lanetan) hainbat gens (leinu) zeuden: autrigoiak, karistiarak, barduliarrak, beroiak eta baskoiak. Iparraldean, Akitanian, hogeit hamar leinutik gora aipatzen ziren eta Estrabonek zioenez antzekotasun handiak zeuden Akitania eta Pirinioez hegoaldekoen artean, bai fisikoan, bai hizkuntzan.

V. mendearen bukaera aldera leinuen izek desagertu eta baskoi izena eman zitzaizkien Hegoalde eta Iparralde bereiztuz (Spano-guasconia eta Guasconia).

IX. mendearen hasieran Garonatik Ebroaraino euskaldunak "Vascones" deituraz azaltzen dira. Germaniar dokumentuen arabera, Vasconia ulterior (hegoaldekoa) eta citerior (iparraldekoa), gerora Nafarroako erresuma eta Baskoniako printzerria izango zirenak.

Antso III.ak lortu zuen Euskal Herri osoa Nafarroako erresumaren agintepean izatea, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Errioxa eta Aragoaz gain, 1033an hil zenean bere ondorengoa Nafarroako erresuman sartu baitzen.

Egoera honek, ordea, ez zuen askorik iraun, Akitaniako dukeak Baskoniako printzerria meneratu baitzuen; hortik aurrera Frantziako orbitan ibiliko da Iparralde. Hegoaldean, berriz, Araba lehenik eta Bizkaia eta Gipuzkoa ondoren Nafarroatik

banandu eta Gaztelako erresumari lotu zitzaizkion. Hortik aurrerakoa nahiko ezaguna da guztiontzat.

Beraz, badirudi zatiketa dela Euskal Herriaren egoera naturala. Euskaldun sentitzea eta euskara bera dira neurri handi batean behintzat, guztiok elkartzen gaituena.

Azkenaldian neuri ere gero eta gehiago kostatzen zitzaidan egunero era guztietako komunikabideetatik horretara zuzendutako informazio bonbardaketa etengabekoaren ondorioz, nafarrak zein iparraldekoak euskaldun bezala ikustea. Jadanik ez nintzen sumintzen inguruan norbaitek "gabaxo" hitza erabiltzen bazuen Iparraldekoak izendatzeko.


Mikel Laboak abesten zuen J.A. Artzen olerkiak dioten bezala: "... ez dugu ikusten, ez dugu ikasten, ... ikusiko ote noizbait, noizbait ikasiko...". Denbora luze behar izan dugu, baina dirudienek azkenean ikasi dugu, eta dagoeneko hasiak gara orain arte gure aurka erabili dituzten trikimailuak erabiltzen. Itxaropen izpi bat ikusi ahal izan dugu etorkizun ilunean: futballak salbatuko gaitu.

Azkenean, Athletic-ari esker, berriro euskaldun ikusi ditut Iparraldeko anaiak. Lizarazu eta Ithurriaren fitxaketekin ez da zalantzarako zirrikitu txikien geratzen, Euskal Herria hiru probintzietara mugatzen dutenek ere onartu behar izango dute gure lurraldetasuna bere luze-zabal osoan. Ezagutu ezagutzen genuen futballak zeukan indarra, orain arte erabiltzen jakin izan ez badugu ere.

Badirudi oraingoan asmatu dugula.

Idoia Esnaola

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

Urasandiko gazte batek bere auzoan gertatutako egoera bat salatu nahi du: neskatxoren bat **espaloian pixa egiten** zegoen eta ez omen zion inork ezer esan. Ez al dago pixa egiteko leku aproposagorik?

Emakume batek deitu digu Anbulategi ondoan **paperkontenedore bat** jartzea komeni dela esateko. Inguru hori kartoiz beteta egoten dela adierazi digu.



TXALOAK

Zinezale batek deitu digu **Ongarri eta Udalaren** artean lortu den akordioa txalotzeko. Adostasun batera iristea zenbat kosta den badakiela esan digu baina zinearen eta elgoibartarren mesedetan izango dela uste du.

Oporrak iritsi dira **BARRE**nera eta eskuartean duzun hau da hil honetako azken zenbakia. **San Bartolome** jaietan berriz ere izango gaituzue zuen etxeetako buzoietan. **Jaien ostean** irailaren 13an kaleratuko da berriz **BARREN**. **Ordura arte, ondo pasa oporrrak!**

San Bartolome jaiak eta Udala

Badirudi Udaletxean moskeatu egin direla Sanbartolomeak antolatzeko deialdien porrota dela eta. "Gazteen eguna"ren desagerketa justifikatzen dute, gazteok egun horretako ekintzen antolokuntzan parte hartu ez dugula esanaz. Hipokresia gutxiago eta lotsa gehiago, mesedez. Hirukoaren erregelaren arabera baserritarren eguna ere desagertu beharko litzateke. Benetan haserrarazten dituen latsagarri gelditu direla da.

Azken hamar urteotan Udaletxeak -PNVren gidaritzapean- eramandako dinamika izan da gazteak erreprimitzea, jaietako programazioan gazteen partehartzea eragozte eta txoznak boikoteatzea. Gazteak antolatu ez daitezen saiatu dira eta Udalaren ustelkeriarekiko haien pasibotasuna bultzatu dute estrategia errepresibo eta burokratikoak erabiliz.

Honek guztiak, gazteen gehien-goak Udala gaitzestea ekarri du. Orain, beraiek ereindakoaren fruituak jaso dituztenean, harridura aurpegia jartzen dute. Nori sartu nahi diote ziria errua gurea dela esanaz? Gainera, aurrekontua murriztu eta urteroko egitaraua kopiatzeko ez dute laguntza beharrik.

Eta beraien amarruari amaiera emateko, Madalako ohiko gune popularra hondatu nahi dute txoz-

nak beraien ohiko lekutik urrunduz eta gainera zerga bat kobratuz. Kultura popularraren onerako, ez dezatela lor.

Traba ofizialik gabe gure jaiak eta ekintzak antolatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Parte hartu, ez zaitezte kontsumitzaile hutsak izan.

Elgoibarko Gazte Asanblada

160. zenbakiko kexari erantzuna

San Pedroko barbakoei buruz azaldutako kexari buruz ari naiz. Izan ere, San Pedroko kanpako karteltxoetan honako 7 debeku hauek azaltzen dira:

1. Txakurrik ezin da ibili.
2. Surik ezin da egin.
3. Zakarrik ezin da lurrera bota.
4. Ezin da futboleant ibili.
5. Ezin da zuhaitzetatik zintzilikatu.
6. Ezin da kolunpiorik prestatu.
7. Ezin da autorik kanpara sartu.


Beraz, ez du inon jartzen **BARBAKOA**rik egin ezin denik. Kexa ipini zuenari mesede bat eskatu nahi nioke: mesedez ez hasi karteltxoetan jartzen ez duenik irakurtzen. Idatzitako arauak jendea irakurtarazten eta betearazten nahikoa lan izaten da orain jendea arau berriak asmatzen hasteko.

Besterik gabe, denona den San Pedrorra joateko gonbitea luzatu nahi dizuet. Behar bezala zaintzen badugu benetan leku aproposa izango da Elgoibarko txoko hau.

Nekane Etxaniz

S. Pedroko kanpako arduraduna

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua Felix Etxeberria “Parapan”ek lagatakoa da. 1965koa da, ez oso zaharra, baina Folklore Jaialdia parean tokatu denez aproposa iruditu zaigu Elgoibarko dantzariak izandako gaztetxo hauen erretratua argitaratzea. Esan bezala, 1965ko ekainaren 5eko argazkia da eta Felixek esandakoaren arabera, Elgoibarren egin zen lehen Euskal Jaikoa izan daiteke.

Ezkerrean tente: **Jose Inazio Sarasua, Aitor Argarate, Hasier Etxeberria, “Katxo”, Sebas Larrañaga, Esteban Antxustegi eta Jose Inazio Izagirre.**

Belauniko, erdiko ilaran: **Jabier Oñederra, Nekane Etxeberria, Jose Inazio Uriguen (atzekoa), Margarita Castrillejo, Kurutz Castrillejo (tente), (...)** Anton eta Xabier Arrieta (txistularia).

Makurtuta aurreko ilaran: **Imanol García, Iñaki Gil, Felipe Castrillejo, Jone García eta Miren Itziar Arrieta.**

Beste erretratua Euskal Jaiarena da, kalejiran Madalatik pasatzerakoan ateratakoa.



IRAILAREN 15era ARTE ESKAINTZA BEREZIAK



TIEN 21



BIRE

ELEKTRAGAILUAK

Ubitarte 3 - Tel. 74 14 87 - ELGOIBAR

Elgoibartar Olinpikoak

Gaur, hilak 19, hasi dira Atlantako Olinpiadak. Lau urtean behin izaten den zerbait izanik, aitzakia hori erabili eta gure orrialdeetara hainbat elgoibartar olinpiko ekarri ditugu. Bik parte hartu zuten Olinpiadetan, Juan Mugerzak eta Ignacio Eizagirrek. Julian Izeta, berriz, Pariseko Olinpiadetan pilotan aritu zen. Horien bizitza berreskuratzeaz gain, Munich-eko Olinpiadetan izan ziren kirolzale amorratu batzuekin aritu gara berriketan.

Mejikon izan ziren Joko Olinpikoak 1968an. Urte hartan, Juan José Astigarraga, Fermín Arrese, José Gurrutxaga, Alejandro Iriondo eta José Luis Ribate inbiditan edo geratu eta hurrengo olinpiadetara joateko planak egiten hasi ziren. Nola edo hala, astero-astero 100 pta. sartzen zuen bakoitzak kutxa batean. Eta lau urtera, 1972.ean hain justu, München izan ziren Olinpiadak zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Jose Gurrutxagak eta Fermin Arresek kontu mordo bat ekarri dizkigute.

- Sirimiria ari zuen atera zinetenean.

- Bai, Ego-Tokitik urten ginan, Ribaten koxian.

- Bidaia luzea autoz egiteko. Arazorik?

- Ez gehixegi. Lelengo aduania Frantzian pasau gendun eta han poliziek dana goitxik behera begiratu ziguten, 10 botila cognac eta beste 20 litro ardokin jun ginan. Baina ez zan ezer pasau, aurrera ein gendun. Suizako frontieran antzerakua, orduan enbutidua izan zian problemia baina esan ziogun zela gure asmua geratu gabe Alemaniara jutia zan Olinpiadetara eta pasatzen laga ziguten.

- Lehenengo aldiz ikusi zenuten koloretako t.b.

- Bai, Wangen-en izan zan, Alemaniako herritxobatian. Tontauta moduan ibili ginan, pantailei begira.

- Hotelean izan al zineten München?

- Ez, etxe partikularrian. Bi kuarto zakazen,

bata bi ohekin eta bestia hirukin. Lo bakarrik eitzen gendun han.

- Egunez egun, bidaia guztia idatzita daukazue.

- Bai, holaxe eitxia erabaki gendun. Egun bakoitzeko gora-beherak anotatzia. Bakoitzak kopixa bat daka biaje hari buruz.

- 76an Moskun izan ziren Olinpiadak.

- Bai, hasi ginan planak ere eitzen baina papeleo haundixa ein bihar zan eta problemak sortu zian. Azkenian jun barik geratu ginan. Hurrengo Olinpiadetan Bartzelonan izan ginan, baina hara jun ginan Alejandro Iriondo eta semia, Juan Mari, Ribate, Karmelo Iriondo eta Fermin.

- Ondo?

- Hobe Munich-en. Sarrerak hobiak izan zian. Bi urte leheno hasi ginan dana preparatzen, gestiuia eitzen eta toki oso onak konsegidu genduzen, etio-pieri deitxu eta harek lortu zeben. Jendiak galdetzen zigun ia zela konsegidu gendun. En kanbio Bartzelonan ez gendun konsegidu, gauzak gogorrau zenden.

- Julio Iglesias ere ezagutu zenuten.

- Bai, atentaua egon zan Villa Olinpikoan eta hara nun gure onduan Julio Iglesias ikusi gendun, musikuekin. Orduantxe hasitxa zauan.

- Zein zan zuen plana?

- Goizian goiz jaiki eta pruebak ikustera jutia zan



Juan José Astigarraga, Alejandro Iriondo, José Gurrutxaga, Fermín Arrese eta José Luis Ribate txapel eta guzti joan ziren Munich-eko olinpiadetara.

gure plana, dana atletismua, hortara jun ginan eta. Botia hartu ardoz beteta eta enbutidua ere ugari. Hauraxe gure plana.

- **Cognac-a saldu egin omen zenuten.**

- Bai, estimazio haundia zakan. Itxuria karua dao cognac-a Alemanian eta tragoxkada bat hartziarren pagau eitxen ziguten. Afari ederrak ein genduzen cognac-an kontura. Bilbotar batzuk sarreran mejikanoz jantzita kantuan eta diru eskian ikusi genitxun.

- **Boskote famatua egin zineten.**

- Bai, periodikuan ere urten ginan. Elgoibartik eraman genduan bakoitzak txapel bat, letrak bordauta. Han ipintzen zaban Munich eta Ego-Toki, soziedadian izenian. Gure maskotia dan lorua ere bordauta zakagun. Hantxe egoten ginan, gure txapela eta botiak. Atentziua deitzen genduan eta ezagunak ein ginan. Azkenengo egunerako telebisorako deitxu ziguten federaziotik, juteko txapelakin eta botiak, baina egualdi txarra zaon eta nahixao bueltatzia.

- **Juergarik bai?**

- Bai, egun batian bai. Municheko zerbezerixa famoso batian egon ginan. Ezin leike sinistu zela eraten daben! Gero esango dabe euskaldunengatik eta txikiteuagatik baina eurak bai diala hortan apartak! Mahixan jarri eta litroka edaten dabe zerbezia, kriston atxu-

rrak harrapatzen ditzue! Gu juntau ginan behin Tolosako batzugin.

- **Giro polita, beraz.**

- Oso edarra. Villa Olinpikotik bueltan beti kantuan juten ginan metruan. Asturiano batzuk esaten zaben, "Jolin estos vascos, cómo van!", harek pentsatzen zebe edanda guazela baina pozik, umoretsu ibiltzen ginan. Gauza bat probau gabe geratu ginan.

- **Zer?**

- Zaldixan buztanan saldia. Beti berandu ailegaten ginan eta zela hain puntualak dian alemanak restaurantia itxita egoten zan.

- **Mammo Wolderekin ere egon zineten.**

- Bai, jende artian ikusi gendun eta saludatzera etorri zan. Gero, Bikila gaixorik zauan, haura bisitatzera ere jun ginan eta Ego-Tokin izenian Urrezko Insignia eman genion.

- **Penaz bueltatu zineten?**

- Beti ematen dizu piskat baina oso esperientzia ona izan zan. Gainera, diru piskat sobrau jakun eta bueltan Zarautzen andrekin ein gendun afarixa.

- **Hurrengo olinpiadak noiz?**

- Gu edadian sartuta gaude eta ez da erretza. Atlanta urruti geratzen da, karua da. Esaten dabe hurrenguk igual Sevillan izango diala baina gaitza da hori, lehen ere ez da denbora asko Bartzelona ein ziala eta Surafrika fuerte dabil...

Olinpiadetan parte hartu duten elgoibartarrak



Juan Mugerza

■ XX. mendea hastean bat jaio zen, 1900. urteko maiatzaren 6an.

■ Krosean ospe handiko korrikalaria zen eta herriz herri biltzen zen lasterketan.

■ 1917 eta 1923 urtean bitartean Espainiako txapeldun izan zen 5.000, 1.500

eta 800 m.tan eta Espainiako txapeldun 110 metro balletan eta errelebu taldearekin.

■ 1920an Anberesen izan ziren Olinpiadetan 5.000 metroko lasterketan korritu zuen eta 8. postua eskuratu zuen. 1500 metrotan, berriz, seigarren geratu zuen.

■ 1927an laga zuen atletismoa baina bere izenean Ego-Toki elkarteak Mugerza Memoriala antolatzen du urtero.

■ 1937an hil zen.



Ignacio Izagirre

■ Upai baserrian jaioa 1896ko abenduaren 26an.

■ "Upai" izenez ezaguna, pisua jaurtitzen zuen eta honek ere, Juan Mugerzak bezala, Anberes-eko Olinpiadetan hartu zuen parte 1920an.

■ Espainiako eta Gipuzkoako txapeldun izan zen

1920an eta 21ean pisu, disko eta jabalina jaurtiketan. Estatuko selekzioko ordezkaria zen.

■ 1971n hil zen.



Julian Izeta

■ 1896ko urtarrilaren 9an jaio zen.

■ 1924 urtean Parisen izan ziren Olinpiadetan esku pilotan eta palan aritu zen, urte hartan kirol hori erakutsi zen eta. Argazkia Parisen bertan aterakoa da eta bertan azaltzen dira ezkerretik hasita:

Gastezi, Julian Izeta, Juanena (delegatua), J.Andres Garate eta ezezaguna. Guztiek hartu zuten parte.

■ Julian amateur mailan ibili zen beti, han eta hemen jokatu eta makina bat txapelketa eta partidu irabaziz.

■ 1956ko maiatzaren 17an hil zen.

Azala eta eguzkia

Azala oztopo-organo bat da ingurugiroaren aurrean. Gugaino heltzen diren eguzki-izpi ultrabioleta nagusiak A eta B izpiak dira. Eguzkiak badu onurarik: dieta normal batekin gure gorputzak nahikoa jasotzen duen D bitamina sintetizatzen du gure organismoak. Beste efektu positibo bat maila psikologikoan gertatzen dena da: erlajazioa, eskuarki oporrei loturikoa. Estetikari dagokionean beltzaran egotearen efektua dago. Modan egon dela esan daiteke, duela ez asko antiestetikoa edo (gure aiton-amonek ondotoxo gogoratuko dute) aire librean lan egiten zuten pertsonen kolorea zen arren. Medikuek U.V.A. izpiak psoriasisaren tratamendurako (Puvaterapia deitua) erabili izan dituzte.

Efektu kaltegarrien artean berehalako efektu txarren artean, azaleko erredura aipa daiteke. Epe luzeragoko efektuen artean daude fotozahartzea (zimur finak eta lodiak, eguzkiak eragindako oreinak, elastosi aktinikoa); lesio pre-kantzerosoak: keratosi aktinikoa, lentigo txarra; lesio kantzerosoak: kartzinoma basozelularra eta espi-

nozelularra, eta, melanoma txarra. Estatu Espainolean, azken estatistiken arabera, 35 eta 50 urte bitarteko pertsonen artean azaleko kantzerra bikoztu egin da. Errua ozono geruzaren zuloari egoztea sinpleegia litzateke. Adituen ustez, ozono geruzaren zuloak penintsularen duen eragina ez da aintzat hartzeko modukoa. Hortaz, ustea da eguzkia protektzorik gabe hartu izanagatik dela. Urteak pasatu ahala, eguzkiaren eragina pilatu egiten da. Ume-

tan eta 20 urte bitartean hartutako eguzkiak beranduago agertzen diren lesio txar eta ez hain txarren eragin zuzena dauka.

Duela gutxi EEBBetako Medikuen Elkarteak ultrabioleta izpien lanparak (U.V.A. eguzki-ohetaz), tratamendu medikuetan erabiltzen direnak izan ezik, debekatzeko eskatu dio F.D.A. delakoari (medikamentuen kontrolaz ardurtzen den erakundea).

Hondartzan, bi urtetik beherako haurrak eguzkipean ez jartzeko gomendatzen dute. Ume koxkorrei 15eko babesgarria edo gehiago ematea. Begi eta ile argiak eta azal zuria dutenek 30eko babesgarria duten kremak erabiltzea komeni da eta orokorrean, pertsona guztiek ez lukete eguzkirik hartu beharko goizko 11ak eta 3ak bitartean.

Gogoratu, MELANOMA TXARRA, azaleko kantzer oso txarra den arren tratamendu oso ona duela tamaina txikikoa bada. Baina tamaina batetik aurrera pronostikoa oso txarra da eta azken aldian mundu guztian izan duen igoerak eguzkiarekin zerikusi zuzena du.

(Erredakzioan itzulia)



F. J. ARISTONDO
Dermatologoa



SUMINISTRO INDUSTRIALAK

■ MOZKETARAKO ERREMINTAK

■ BABES MATERIALA

■ RODAMIENTOAK


■ LANPARA INDUSTRIALAK

**Metabo erreminta
elektrikoen eskualdeko
banatzailea**



Santa Klara kalea, 24 Tel/Faxa: 74 10 97 • ELGOIBAR •

Inporta al zaizu udan beltzarana ez egotea?



DOMINGO VARONA
59 urte, jubilatua

Nahiago kolorearekin. Normalean mendira eta hondartzara joaten naiz. Solarium-a hezurrentzat oso ona dela entzun dut eta ziatika izan dudanez agian probatuko dut.




MAITE VITORES
46 urte, langabetua

Beltzarana egotea gustatzen zait baina lehen antsia gehiago izaten nuen. Orain denbora gutxiago egoten naiz eguzkitan.. Solarium-a ez zait gustatzen, ez dit onik egiten.



TERE ALONSO
46 urte, etxekoandrea

Kolore piskatekin beti hobeto. Ez daukat ohiturarik solarium-era joateko. Beti nago joatekotan hondartzan hasi aurretik baina ez daukadanez beltzarana egoteko biziorik...



JUAN MARI UNZUETA
40 urte, trokelista

Neri ez dia inporta, bat ere. Plaiara ere andria eruaten dot baina ni kanpua geratzen naiz. Solarium-an modia nahi dabnantzat ondo dao, ni behintzat ez naiz juten.



ALICIA REY
28 urte, dendaria

Udan beltzarana egotea gustatzen zait. Noizean behin solarium-era joaten naiz, eguzkiak baino konfidantza gehiago ematen dit, batez ere gaur egun entzuten diren gauzekin.



JOSE MARI AZPELETA
42 urte, elektrizista

Hobe beltzarana egotea. Bizikletan, arrantzan... beti jotzen dizu eguzkiak. Ezkondu aurretik zaletasun gehiago nuen hondartzan etzan eta eguzkia hartzeko. Orain ez.

S A S I T R E R I A

Maria Angeles Azpilicueta

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 75 50 86

ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 88

■ San Bartolome jaietako baserritarren bazkaria

Elgoibarko Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, San Bartolome jaietako Baserritarren egunean, abuztuaren 31n, bazkaria izango da La Unión elkartearen. Bazkarira joan nahi duenak aurrez tiketa eskuratu behar du 3.000 pta.ren truke Kultur Etxean goizeko 11etatik ordu batera bitartean. Bazkarira joango den jende kopurua lehenbailehen jakin nahi du Udalak, hortaz, izena ahalik eta azkarren ematea komeni da. Izena emateko azken eguna abuztuaren 27a izango da. Tel: 74 21 58.

■ "Joseba Etxeberria" peñaren oharra

Joan den astean Athletic Club-Joseba Etxeberria peñakoek izan zuten bileran urteko kuoten zenbatekoa erabaki zuten. Nagusiek sarrera modura 2.000 pta.ko ordaina eta hileroko 500 pta.ko kuota izango dute eta 18 urteko beherakoek 1.000 pta.ko sarrera eta hileroko 250. pta.ko kuota. Ordainketak Kaia tabernan edo Vasconian peñak duen kontuan sartuz egin daitezke. Asmoen artean daude irailean Athletic-ekoekin afaria egitea, Athletic-ak kanpoan jokatzeko duenean partidua ikustera joatea eta jokalariekin hitzaldiak antolatzea.



Aparkalekuak gehitu eta OTA jartzeko aukera aztertzen ari da Udala

Udaltzaingoa OTA-ren bidez araututako aparkaleku mugatua martxan jartzeko proiektua aztertzen ari direla adierazi zuen prentsaurrekoan Udaltzaingoko buruak. Herriko kale nagusiengana, hala nola, Trenbide, P. M. Urruzuno, San Inazio, Antonio Arrillaga, Santa Ana, Aita Agirre plaza eta Ubitarten. OTako txartelen salmentarako 9 makina jarriko lituzkete eta aparkaleku arautua goizeko 9etatik 13,30etara eta arratsaldean 16,30etatik 20,00etara bitartekoa izango litzateke. Datozen egunotan Udal agintariek Madrileko "Dornier" enpresaren eskaintza aztertuko dute. Urtebeterako esperientzia pilotua da, jasotako diruaren %70a enpresarentzat izango delarik eta %30a Udalarentzat. Plan honen arabera 326 lekutan mugatuko litzateke aparkaleku-denbora. Santa Ana, Urruzuno eta Plaza Txikian aparkaleku-txartelak zertxobait garestiagoak izango dira,



leku hauetan trafikoak berebiziko garrantzia baitauka. Hala ere, txartelen prezioa merketze aldera, Udalak jasoko lukeen portzentaiaren zati bat enpresa instalatzaileari emateko aukera aztertuko du.

Honez gain, aparkaleku berriak sortzeko asmotan dabil Udala: Alkortako fabrika 100 aparkaleku inguru (Anbulategi ondoan), Goiko Errotan 60 eta 130 bat Madalan (Arriola fabrika inguruan).



Leire Solupe jaiotzez elgoibartarra baina Arrasaten bizi den 25 urteko gazteak irabazi du 1996ko San Bartolome jaietako kartel iragarlearen lehiak. Alboan agertzen den lanagatik 50.000 pta.ko saria jasoko du. Ordenagailuz egindako kartela da irabazlea, Udaletxea duelarik irudi nagusia. Kolore deigarri apaindua, argazkian ikus daitezkeen marrazkiak beteko ditu abuztuaren banatuko diren jai-egitarau guztiak. Aipamen berezia Maite Rementeria elgoibartarrak egindako lanak merezi izan du. Maitek jasoko duen saria 15.000 pta.koa da. Bederatzi lan aurkeztu dira guztira eta aipagarria da lehen aldiz neskak izan direla lehiaketaren irabazleak.

Irailean aurkeztuko dute Kilometroen diska

Kilometroak 96 edizioaren bueltan, Elgoibar-ko musikaz osaturiko diska berezia grabatu dute antolatzaileen ekimenez. Diskaren grabaketa amaitu berri da Donostiako Elkar estudioetan eta orain diskaren diseinuarekin ari dira buru belarri. Azala eta liburuxkaz Zubiaurre arduratzen ari da eta dena ongi joanez gero, iraileko lehen egunetan aurkeztuko dute diska jendaurrean.

Diskak ordubete eta sei minutuko iraupena dauka eta 200 bat musikari aritu dira grabaketan. Parte hartu duten taldeak hauek dira: Koska, Mauxitxa txaranga, Dultzaineroak, Gelatxo, Zabale trikitilariak, Udal Txistulariak, Itxaropena abesba-

tza, Banda, Parroki abesbatza, Alberto Iriondo, Albartross, Zigor Gazkez, Zokotan, 6Nemen9, Ehun Kilo, Kokoteraino, Sexual Perbers eta Drindots. Haez guztiez gain, Ikastolako haurrek ere izan dute beren lekua diskan. Abeslari izan diren ikasleak: Jokin Altuna, Joana Astigarraga, Aitor Arrieta, Miren Bastida, Haritz Arrieta, Ainara De Pedro, Andoni Etxabe eta Guruzne Urkidi.

"Banoa, banixe"

Abesti gehienak elgoibartarrek egindakoak



dira, batzuk diskarako apropos idatziak eta beste batzuk lehenago egindakoak baina diska honetan lehen aldiz argia ikusteko aukeratuak. Kilometroen abestia "Banoa, banixe, euskaraz, bai horixe!" izenburukoaren musika Alberto Iriondo elgoibartarrak egin du eta letra Mari Kruz Intxusti Ikastolako irakasleak. Grabake-

ta eta nahasketak Jean Phocas eta Haritz Harreguy-k egin dituzte eta moldaketaren eta produkzio musikalaren arduraduna Mikel Errazkin Sorotan Beleko partaidea izan da. Kilometroen abestia Drindots taldekoek, Ikastolako haurrek, Mo'Mao Brass taldekoek eta Mikel Errazkin eta Ane Irazuk kantatzen dute.



Diario Vasco Gazteak haurrentzako jaia antolatu zuen joan den ostegunean. DV Gaztea gehigarriko arduradunak herriz herri ibiltzen dira umeek ondo pasatzeko prestatzen dituzten hainbat jolasekin. Igeriketa jokoak, bizikleta gainean ibili, nor bere abileziak erakutsi.. denetik egiteko aukera izan zuten Plaza Handian muntatu zen festan. Altxor bila jokoan Uxue Alberdik eta Maite eta Ainhoa Uriartek irabazi zuten.

■ Urrearen zozketa

Gurutze Gorriaren urrearen zozketan sarituak atera diren zenbakiak hauek dira: lehen saria 30.210 (110. seriea); bigarrena 32.874 (101. seriea) eta hirugarrena 24.136 (138. seriea). 310 zenbakiarekin amaitzen diren txartel guztiek urrezko lingote txiki batekin sarituak izan dira. Hauetako sei txartel Elgoibarren saldu dira.

■ Txiskolan parte hartzeko deialdia

ETBko Txiskolako arduradunak txisteak kontatzeko prest dagoen jendearen bila dabiltza. Elgoibarren ere jo dituzte ateak eta norbaitek Txiskolan parte hartu nahi badu Elgoibarko Izarra Elkartera dei dezake (74 16 26, Imanol) uztailaren 24a baino lehen. Animatu, umorea osasuntsua baita.

Maria eta Sabin Txurruka:

"Pelotia umetako jolasa zan guretzat"

San Lorentzoko Gelatxo baserrian jaiotako anai-arreba hauek lotura zuzen-zuzena izan dute pilotarekin. Bata, Maria, 72 urtekoa bera, raketista profesionala izandakoa, gaur egun Mexikon bizi da.

Bestea, Sabin, 61 urteko baserritarra, esku pilotan aritu da betidanik afizionatu moduan. Biek ere umetako jolasa zena afizio eta ofizio bihurtu zuten. Eta gaur egun, harro daude euren bizipenez.

- Kamineroko frontoian ibiltzen zineten pilotan.

- **Maria:** Bai, eskolan hasi ginan pelotan, Kaminerokuan edo San Lorentzoko frontoian. Oin ez dao Kamineroko frontoirik. Raketia beranduo erosi zian aitzak. Mutrikura jun eta neurrira eindako raketia bueltau nitzan.

- Jolas modura hasi eta...

- **M.:** Madriletik etorri zan enpresarixoa bat eta harek kontratauta jun ginan Bartzelona, Madrid, Valentziara...

- Gustura?

- **M.:** Bai, ze epoka hartan emakumiok ez zakagun ezer hemen geratuta, baserrixa, ezkondu eta umiak ein. Nik beti esaten dot raketistak izan ginala lelengo hipiak.

- Fama ona al zenuten?

- **M.:** Ez, liberalak ginala esaten zeben. Ez zaon ondo ikusitxa ze mundu desberdina zan, asko biajatzen gendun, jende ugari ezautu...

- Eta konkista asko.

- **M.:** Bakarren batzuk bai. Normala zan ze, frontoian partidua ikustera juten zianak gizonak zian.

- Mexikon bizi zara.

- **M.:** Bai, 1951. urte-tik. Barkuan jun ginan eta 31 egun tardau genduzen. Han ezkondu eta neure



"Makina bat bider amari galtzerdixa soltau eta artiliakin eitzen gendun pelotia. Gero, aitzak Mutrikun erosi zian neurriko raketia"

bizitza ein naban. Urteko kontratuakin nauan, astian hainbeste partido.

- Presio handia?

- **M.:** Bai, ze apostuak eitzen zian. Jendiak diru asko jokatzan zaban eta galtzen ari bazinan, demasak entzun bihar izaten zenitxun. Oin, irabazitxakuan jasotako txaluek ilusio haundixa eitzen zeben.

- Sabin, zuk oraindik egiten duzu pilotan.

- **Sabin:** Oin Sigmako txapelketako semifinaletan nabil. Ni baino gaztio dakat bikotia eta bati falta jakona bestiak sobran...

- Beti afizionatu.

- **S.:** Bai. Zenbat bider amari galtzerdixak hartu eta soltau gero artiliakin pelotak eitzeko! Nere epokan pelotarixak sobran geunden eta enpresa gitxi. Oin ondo pagautako deportia da.

- Halere, jokatziarren ordaintzen zizuten.

- **S.:** Bai, uda partian jaixak ziala eta askotan deitxu, jun, jokatu eta zeozer pagatzen zien beti.

- Aurrelaria, ez?

- **S.:** Beti, baina oin atzelari nabil. Aurrelarixak arina bihar dau izan, atze-

larixak indarra eta bistia. Jokatzeko aurrelari izatia hobe da, askoz ikusgarri-xaua da eta. Baina...

- Apostuengatik zigorrik ere jaso izan zenuen.

- **S.:** Bai. Afizionau mailan ezin leike aposturik ein, korredorerik ez dao eta. Behin Zestuan apostuak ein zian eta santziua etorri zan, urtebete jokatu gabe. Baina, Club Deportivoan urrezko ezteiak ziala eta, barkatu ein zien federaziuan sei hilabetera.

- Plaza eta txapelketa asko.

- **S.:** Bai, baina estimauena Luistarren kopia, irabazitxako lelengua.

- Eta eskuetan, pilotarien marka.

- **S.:** Bai, atzaparrak ziharo okertuta geratzen dia hainbeste bider pelotari jo eta askotan gaizki ematiarren. Behin arpeixan pelotazo bat hartu naban eta hilebete egon nitzan ezer jan ezinik. Gainera, San Lorentzo jaixen bizpe-
ran izan zan!

- Koloreekin superstizio-rik?

- **S.:** Neuk ez. Neuri bildurra kontrarixuak ematen zian. Baina batzuk segitxuan juten zian kolore gorrixakin nahixau zebela jokatzia eta, batzuk bada-kate holako siniskerixak.

kiliBARREN

Mendaroko gehigarria

Uztailaren 19a

31. zkia.

Hilabete honetako argazkia Maritxu Unzuetak

lagatakoa da eta berak esan digunez erretratuak 40 urte ditu gutxi gora-behera. Argazkia Santana jaietako da, Santa Ana eguneko hain justu. Ohiturari jarraiki, Santa Anara igotzen ziren mezatara baina garai hartan ez zeukaten zapi berderik eta txapel eta zapi gorriarekin ibil-tzen ziren. Hona hemen argazkian agertzen direnak: Goian, Maritxu Unzueta. Behean, ezkerretik hasita: Koro Mardaras, Pili Hernandez, Clemen Hernandez eta Mari Jose Arriola.



**GOXOKI
GOZODENDA**

Ogia, boiloak, gozokiak, ...

Pastelen enkarquak hartu eta etxeraino eramaten ditugu.

Mendarozabal, 5 - ☎ 75 51 90 - Mendaro



IREKI BERRIA

LANDA

ERRETEGIA

Garagarza, 32 ☎ 75 60 28

BEREZITASUNAK

- ♠ LEGATZA CHANPAGNE ERARA
- ♠ GANBA ETA INTXAUR PUDDING-A

Gaiak ondo pasatu !!



Zapi berdea jantzi eta denok kalera!

Ud a giroarekin batera hasi dira jadanik herri gehienetan jaiak ospatzen. Guztien ilusia izaten dira herriko jaiak eta

mendarotarrok berehala ditugu gainean. Hilaren 24tik 28ra bitartean, zapi berdea ipini eta jo eta su ibiliko gara Santa Ana jaietan. Aurten lehenengo aldiz Salbea izango da Garagarzako elizan eta Santanari zapia jarriko zaio. Ez dira faltako urteroko sokamuturrak,

suzko erroberak, dantzaldiak edo txarangaren kalejirak. Dena dela, erreportaia honetan Kuadrilen egunari eskainiko diogu tarte berezi bat. Uztailaren 27an izango da eta Mendaroko kuadrila guztiek har dezakete parte.

Makailo txapelketa

Urtero paella txapelketa ospatu izan da Gazteen egunean. Aurten, aldiz, Makailo Txapelketa antolatu du Udalak. Gehienez 20 taldek har dezake parte eta beharrezko osagaiak Udalak jarriko ditu. Sukaldari afizionatuek hartuko dute parte txapelketa honetan eta lehenengo saria 10.000 pta. eta trofeoa izango dira. Bigarrenak 5.000 pta. eskuratuko ditu.



Uztailaren 27an, Kuadrilen egunean, afari herrikoia izango da aurten.

Zer suposatzen du zuretzat Kuadrilen eguna egoteak?

Balbi Vives

Emakumeen taldeko partaidea


Gure taldeari oso ondo iruditzen zaio kuadrilen eguna egotea beti ere, herrixa biltzeko eta jendea elkartzeko bada. Ekintzen bitartez elkartzen baldin bada, askoz ere hobeto. Guk ekintza horiek aipoi-tzen ditugu eta ahal dugun neurrian parte hartuko dugu.



Jesus Garate

Kilimoiko presidentea

Pertsonalki ondo iruditzen zait kuadrilen eguna egotea eta bat nator ekintzekin baina ez dakit ekintza horietan parte hartuko dudan. Udalak antolatutako bileran ni ere soziedadetik joan nintzen eta kros antzerako bat egitea proposatu gendun baina ez zan irten.



Santa Ana Jaiak

Uztailak 20, larunbata

16,30: Plater Tiro Txapelketa. Santakruzko zelaian.

Uztailak 21, igandea

18,00: Pilota Partiduak Goñatin.

Uztailak 24, asteazkena

SANTIXO BEZPERA

19,00: Salbea Garagarzako elizan eta Santanari herriko zapia jartzea.

23,00: Nazioarteko folklore jaialdia Goñatin.

Isla de Tonga eta Sahatsa dantza taldeak.

1,00: Diskoteka eta Karaokea, Azpilgoetako plazan.

Uztailak 25, osteguna

SANTIXO EGUNA

18,00: Sokamuturra Garagartzan.

22,45: Su artifizialak piroteknia Zaragozanarekin.

23,00: Tanborrada Mauxitxarekin.

Ondoren, dantzaldia Trabukorekin.

Uztailak 26, ostirala

SANTA ANA EGUNA

12,00: Erromeria Santanako zelaian.

18,00: Herri Kirolak: aizkolariak, harrijasotzaileak, bertsolariak, trikitalariak.

23,30: Dantzaldia Arkaitz taldearekin.

Uztailak 27, larunbata

KUADRILEN EGUNA

9,00: Sokamuturra Garagartzan.

12,00: Makailo txapelketa.

18,30: Sokamuturra Garagartzan.

21,30: Afari Herrikoia Frontoian.

24,30: Play-Back lehiaketa eta Patata dantza.

Ondoren, dantzaldia Izotz taldearekin.

Uztailak 28, igandea

UMEEN EGUNA

12,00: Umeen tanborrada Bizi-Poza txarangarekin.

16,00: Umeentzako parkea Ikastolako patioan.

19,00: Kakax, Kokox eta Mirriki pailazoak frontoian.

22,30: Kalejira Bizi-poza txarangarekin.



Orain 2 urte hasi zen Play Back-ak izugarritzko arrakasta izaten du.

Aurten egingo da lehenengo aldiz makailo txapelketa. Arratsaldean, ohi denez, kuadrilen arteko jolasak izango dira eta ondoren sokamuturra.

Afari herrikoia

Afaria frontoian izango da eta enpresa baten esku egongo da. Menestra, txahal haragi errea, flana izozkiarekin, kafea, kopa eta txanpaina izango dira menuan eta prezioa 1.300 pta.koa da. Nahi duten guztiek joan ahal izango dute.

Gainera, Izotz taldeak afaria alaituko du eta ondoren berbena izango da.

Play-back lehiaketa

Orain bi urte, Izotz taldeak lehen aldiz jo zuenean, hasi zen play-back lehiaketa. Orain artean izugarritzko arrakasta izan du ekintza honek. Kuadrila askok eta askok hartzen du parte urtero eta Santa Ana jaiak hasi aurretik hasten dira prestatzen musika, jantziak, koreografia... Hori guztia lehiaketako onenak izateko. Iaz Flores familia izan zen irabazle eta horiekin batera ABBA, Sara Montiel, Pinpinela eta beste asko izan ziren. Partehartzaileek ezezik, ikusleek ere ondo baino hobeto pasatzen dute. Ea aurten ere

Arantxa Eizagirre Etxekonadrea

Nik jaietako beste egun batian daukat kuadrilako afaria, urtero egiten baitugu. Egun horretan ez dakit oraindik ekintzetara joango naizen, agian a f a r i herrikoira. Paly-back lehiaketa ikusteko g o g o h a u n d i a daukat iaz ez bai-tnuen



Alain Ulazia ikaslea

Nik pentsatzen diat egun berezi hau "Kuadrilen eguna" izenpean jartzeak, ikustear dagoen gauza bat dela izan dezakeen eran-tzun aldetik. Garbi dagoenez jende aldetik helduek ere partaide izango direla a n b i e n t e saltseroagoa izango diagu. Ahaztu gabe, gazteei bakarrik dagokien inguruan lehengo urtian baino gazte gehiago





Andra Mari jaiak

Hilaren 14an, arratsaldeko 6etan emango zaie hasiera jaietxapligoak botaz eta ondoren salbea izango da Azpilgoetako elizan.

Hilaren 15ean kalejira izango da txistulariekin goizeko 10,30etan. 11etan meza nagusia izango da eta eguerdiko 12etan herri kirolak aizkolari, harrijasotzaile, oskol-biltze eta ahari jokoarekin. 2,30etan bazkari herrikoa egingo da Aizpe elkartean eta 6etan gazteentzat sorpresa izango da Aizpeko atzeko aldean. Arratsaldeko 7,30etan txikiteoa egongo da trikilariekin eta gaueko 10,30etan kalejira eta dan-tzaldia Bizi-poza txarangarekin Azpilgoetan.

Abuztuaren 16an, Kanariar irletara bidaiaria zozketatuko da ONCeren laguntzarekin.

Txirrindulari lasterketa

Joan den larunbatean korritutako Txirrindulari lasterketan Jon Del Rio, Renault Goierri taldekoa izan zen garaile. Bigarren Gorka Apalantza Ikasi taldekoa eta hirugarren Zigor Amestoy, Cafes Aitonakoa. 187 txirrindularik hartu zuten parte eta horietatik 92k amaitu zituzten 82 kilometroak.



Isla de Tonga eta Sahatsa, folklore jaialdian

Urteroko ohitura jarraiki, aurten ere Santana jaiemn barruan Nazioarteko Folklore jaialdia izango da uztailaren 24an. Gaueko 11etan hasiko da Goñati pilotalekuan eta aurtengoan **Isla De Tonga** eta **Sahatsa** dantza taldeek hartuko dute parte. Isla De Tonga Pazifiko hegoaldean kokatutako artxipiela da, Polinesiar geldituen erreinu bakarra. James Cook kapitain britainiarra izan zen Tongako artxipiela bisitatu zuen lehena 1773. urtean. Berak zioenez, herrialde oso alaia da eta dantzari eta musikari

ikusgarriak. Tongatarren kultura eta izpiritualtasunaren arteko loturak garrantzi handia du. Dantza eta musika Jainkoa gurtzeko eta pertsonen duintasuna errespetatzeko moduak dira.

Sahatsa dantza taldea, berriz, 1976. urtean sortu zen eta gaur egun Azkoitia eta Azpeitiako gaztez dago osatua. Bere helburua euskal folklorea ezagutaraztea eta zabaltzea da. Ingalaterra, Frantzia, Alemania eta Estatuan zehar hainbat emanaldi egin dituzte.



Pilota Txapelketa

Uztailaren 5ean eta 6an jokatu ziren finalak. Hona hemen emaitzak: infantilen mailan, palaz Ivan Zubiaurrek 22 Andoni Zulaikak 7, eta eskuz Jon Larrañagak 15, Ivan Zubiaurrek 16. Helduen artean, palaz Andonegi/Bergua bikoteak 18, Egaña anaiek 35. Eskuz, Andonegi/Lazarobasterrek 17, Beraza/Ansolak 22.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Marivi Gonzalez

Modas Ferpi dendakoa



- **Arropa estua ala zabala?**
▶ Estua batez ere.
- **Pelikula bat?** ▶ Amodiozkoak, "Isabel"asko gustatu zitzaidan.
- **Definitu zure burua.** ▶ Pertsona apala naizela uste dut, normala.
- **Barruko arropa koloretakoa ala zuria?**
▶ Betidanik gustatu izan zait zuria.
- **Pertsona bati zer begiratzeko diozu?**
▶ Beti begiratzeko dut pertsonaren barrua.
- **Nora egingo zenuke bidaia erromantiko bat? Norekin?**
▶ Bahamasetara eta igual ni bakarrik joango nintzateke hainbeste jende aguantatzeaz aspertuta bainago.
- **Leopardoaren agresibitatea ala katu txikiaren lasaitasuna?**
▶ Katuaren lasaitasunarekin geratzen naiz.
- **Bizitzeko urtaro bat? Eta lanerako?**
▶ Edozertarako uda eta hemen, Euskal Herrian.
- **Bizitzan izan duzun dezeptzioen bat?**
▶ Seme-alaba gehiago ezin izan dudala eduki.
- **Poz bat?** ▶ Nire alaba eduki nuenean.
- **Nori ez zenioke irekiko zure etxeko atea?**
▶ Jende guztiari irekitzen dizkiot nire etxeko ateak.
- **Pertsona batek izan behar duen kualitatetik inportanteena?**
▶ Pertsonalitate propioa izatea eta bakoitzak zer nahi duen jakitea.
- **Nor izan nahi zenuke?** ▶ Ni neu.
- **Zer irakatsi dizu bizitzak?** ▶ Dena, kolpe asko hartu baititut bizitzan.
- **Gau ilunak ala izarrez beterikoak?** ▶ Izarrez beterikoak.
- **Zer albiste entzun nahi zenuke bihar telebista pizterakoan?**
▶ ETak bere ekintzak alde batera laga dituela.
- **Azken aldian zer izan da gehien harritu zaituena?**
▶ Gure inguruetakoa hainbeste gazte hiltzeak asko eragin dit.
- **Betetzea nahiko zenukeen ametsa?**
▶ Nere etxean dena ondo egonik, Cazorla aldera bizitzera joatea.

JABI LEON

Futbola txoratzeko ari da

Azkenaldian futbol munduan nagusi zuriak.

Jokalaririk onetsuenak dira denen kutizia.

Horretarako presidenteeek galdu dutela neurria, ez zaie axola edonorgatik mila milioi pagatzia.

Agintariekin futbola zena bihurtu dute mafia. (Berriz)

Hainbat fitxaje egiten dira jendea dago gustura, atzerritarrek dira gehienak hori da oraingo moda.

Ta harrobia zaintzen dutenak geratzen dira albora, irtenbide bat laster batean hemen lortu beharko da.

Atzerritarren moda honekin gu ez baikoaz inora. (Berriz)



ION GARATE



LEKU ONA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Taberna
Ondo pasa jaiak!

Mendarozabal 13 - Tel. 75 60 65 - MENDARO

ORMOLA

TABERNA

AZPILGOETA, TEL. 75 50 16 MENDARO

Urteko 1.600.000 pta.ko laguntza emango dio Udalak Ongarriri legealdi honetan

Isaak Loiola eta Ana Santolayak, Ongarrirekin sinatu duten hitzarmenaren berri eman zuten prentsurrekoan. Aire Libreko emanaldiei buruz eta Zine Klubaren inguruan hainbat puntu eztabaidatu eta akordio batera iritsi da Udala Ongarriko kideekin.

Legealdi osorako sinatu dute

Aire Libreko zinearen kasuan arau bereziak dauden arren, Zine Klubari dagokionean beste elkarteei aplikatzen zaien araudi berbera ezarriko zaio Ongarriri. Aurrez aurkeztu beharko du programazioa, bukeran fakturak erakutsi beharko ditu eta horren araberrako dirulaguntza jasoko du. Gestio osoa, bai takila-



hitzarmena. Jarraipena egingo bada ere, printzipioz eta beste arazoren bat sortu ezean, lau urtez mantenduko da akordioa. Honekin batera, gai ekonomikoa ere finkatu zen. Aire Libreko zinearen gestioagatik milioi bat pta. jasoko ditu Ongarri eta 600.000 pta. Zine Klubagatik. Kopuru hauek urtero IPCaren arabera gehituko dira. Lokalari dagokionean, berriz, Artetxeko eskola zaharrean kokatuko da Ongarri elkartearen txokoa.

jea, bai emisioa, zinten aukeraketa eta alogera, guzti-guztia Ongarriren esku geratuko da kasu honetan.

Loiolaren hitzetan, "Udalarentzat positiboa da hitzarmena. Zentzu ekonomikoan kostuen txikitzea dakarrelako. Iaz Ongarri 1.173.000 pta. jaso zituen gestioagatik eta pelikulen alogera 1.212.620 pta. ordaindu zen. Aurtun, gestioagatik milioi bat pta. jasoko dute eta alkilerria gehienez 850.000 pta.koa izango da".

1.850.000 pta. Aire Libreko Zinerako

17 pelikularen emanaldia izango da urtero. Pelikulen aukeraketa Ongarri egingo badu ere, gestioa Udalaren esku geratuko da. Honen arrazoia kostuak merketzea da. Izan ere, Udalak Herriko Antzokiaren gestioa duenez, banatzaileari aurrez estrenatutako pelikula bat eskatzen badio prezioa merkeagotu egiten da. Zuzenean Ongarri alokatuko balitu zintak, estrenu bezala ordaindu beharko lituzke nahiz eta aurretik Herriko Antzokian emandakoak izan.

Honekin batera, gehienez jota 850.000 pta. gastatu ahal izango da pelikulak alokatzen.

Ezer zehaztu ez den arren, Aire Libreko Zinea hobetzeko hainbat hobekuntzak egin daitezke eta otsailerako aurkeztu beharko dute Ongarrikoek aurrekontua. Besteak beste, frontoi aldetik argirik eta aieririk ez sartzeko kurtina jartzea, pantaila, bafle berriak erostea...

Bestalde, Ongarri Aire Libreko emanaldiak beste herrietara hedatzeko baimena eman dio Udalak, beti ere Elgoibarren behar ez den bitartean eta jasotako diruaren %25a Aire Libreko Zinean inbertitzen den heinean.

NAHIA

ILEAPAINDEGI MISTOA

Ondo pasa Jaia!

Azpilgoeta, 16 - MENDARO - Tel. 75 51 01

Jose Agustin Urbieta Goikoetxea

ALBAITARIA

☎ 75 50 34

Kotxekoa 908 77 40 85

Azpilgoeta, 25 - 1 esk.

20850 ELGOIBAR

Altzolako zubia

- Deba ibaia zeharkatu ahal izateko, auzuneko alde biak elkar lotuz eraiki zen zubi eder eta dotore hau. Garai batean bere azpitik zein gainetik mugimendu handia ezagutu bazuen ere, egun lasaitasun handia dago.
- Kararrizko harlanduz eraiki zen, bi arkuen arteko gunea eta hormaren goiko aldea ezik, harlangaitzez egina baitago. Ibaiaren erdian sartzen den pilare sendoak erdi puntuko bi arku eta bere azpian geratzen diren bi kainoi ganga eusten ditu, hauek bere besoak bi ertzetaraino bidaltzen dituztelarik, han ere eutsiz.
- Zutabeak ur korronteari aurpegia emanaz honen indarra hautsiz eta ura bi aldetara berdin banatu ahal izateko zubi-branka edo zubi-bular zorrotz bat itsasia du.
- Zubi hau duela 43 urte arte auzune honetan zegoen bakarra, bere hormetan atzeman daiteke, gutxienez, bi bider zabaldua izan dela mendebaldetik. Lehenengo zabaldua kararrizko harlanduz egin zen, hiru harlandu gehiago erantsiz kanoi gangetan lehendik zeuden

zazpiri, beti ere, lehengoa errespetatuz bai materiale aldetik bai eta diseinu aldetik ere. Bigarren zabaldua hormigoiz eraiki zen, hegalkin bat erantsiz, adabaki bat besterik ez delarik.

- Halaber, pretila edo karela mendebaldean hormigoizkoa den bitartean, ekialdean burdinezko baranda kontserbatzen da ibairako babes bezala.

■ Antzinatek kokatzen da zubia gune horretan. Kontuan izan behar dugu auzunearen ertz biak lotzeaz gain, Elgoibartik zetorren bideak Mendarora eta kostaldera joateko derrigorrez ibaia zeharkatu behar zuela.

■ XVI. mendera arte egurrezkoa izan zen, garai honetan harrizkoak eraikitzen hasi baitziren.

■ Gainera, Altzolaren kasuan zubia-ri buruzko eraikuntzari buruz dokumenturik ez dagoenez, arrazoi asko dago XVI. mendean harrizkoa eraiki zela esateko.

PELLO ARRIETA



Amelia Perez-Cortes Pajuelo (1910-1983)



- Badajoz-en jaio zen 1910eko urtarrilaren 14an.
- Bederatzi anai-arrebaren artetik zaharrena zen.
- Badajoz-eko "La Normal" izeneko eskolara joan zen. Behin eskolakoak amaituta, etxeko lanetan aritu zen.
- 1946an etorri zen Elgoibarrera, aitarekin batera, Elgoibarko Musika bandako zuzendaria baitzen Julio Perez-Cortes.
- Elgoibarren ezkondu zen, Forjas de Elgoibar-en lan egiten zuen Sergio Porcel-ekin, Granadan jaiotakoa bera.
- Ez zuten seme-alabarik eduki. Hala ere, oso bikote elkartua zen.
- Herritarren artean emakume ezaguna zen, izakera atsegin eta irekia baitzuen.
- Brodatu lanak egiten zituen Abdón dendarentzat.
- Zaletasunen artean, musika, irakurketa eta dantza zituen maite.
- Sinesmen handikoa zen. San Vicente Konferentziako kide izan zen.
- 1983ko abenduaren 30ean hil zen.

JUANITO GOROSTIZA

ARBOLETA Jatetxea

Ondo pasa jaiak!

Jaietan bazkaldu edo afaltzeko leku aproposa

Hirurtasun kalea 3 • MENDARO • Tel. 75 60 45

IRRINTZI PAPER DENDA

eta orain...

Ondo pasa jaiak!

FOTOKOPIAK ETA ENKOADERNAKETAK

Azpilgoeta, 18 - MENDARO - Tel. 75 50 76

MOTZAK



Errealak Zuhaitz Gurrutxaga fitxatu du

Datorren denboraldian Zuhaitz Gurrutxaga Loiola futbolariak Errealean jokatuko du. Duela hiru bat aste proba batzuz egin eta txuri-urdinek bere talderako hartu zuten. Uztailaren azken aldera hasiko da donostiarrekin entrenatzen, jubenil gazteen taldean. 15 urteko gazte honek kadeetan jokatu izan du C. D. Elgoibarren. Lehenago ere egon da Errealean, infantil mailan. Orduan osasun arazo txiki bat izan zuen eta berriro itzuli zen Elgoibarko taldera. Gipuzkoako selekzioarekin aritu izan da eta orain gutxi, Eurocoparekin batera, Espainiako 15 urtez azpiko selekzioarekin jokatu ditu Wembley-n hainbat partidu amistoso.

Pilotako emaitzak

Benjaminen emaitza hauek izan zituzten Mallabiako "Txikito" txapelketan joan den asteburuan: Iriondo 18 - Becerra (Igorre) 10 Murua 18 - Arriaga (Abadiño) 5 M. Bergara 18 - Arriaga (Durango) 1 Azpiazu 11 - Larrazabal (Berriz) 18



Gorka Muñoz:

"Talderik gabe ezin da zaletasunik sortu"

■ **Rugbyan aritu izan zara duela gutxi arte.** - Bai, Eibar Rugby Taldean, iaz arte. Ikasketak, entrenatzera Eibarrera joan beharra... denborarik ez eta azkenean uztea erabaki nuen.

■ **Zenbat elgoibartar taldean?** - Jubeniletan Elgoibarko 5 geunden. Gipuzkoako taldeek osatutako ligan aritu ginen baina sekula ez genuen titulurik irabazi.


■ **Ligaz aparte, hondartzan ere jokatzen zenuten.** - Amistosoak ziren, Donostiako eta Zarautzekoak, eta, guk jokatzen genuen triangular bat zen.

■ **Elgoibarren taldea sortzea nahi zenuen.** - Eta bilera bat ere izan genuen Udal teknikariarekin. Bilera aurretik jendearen artean deialdia zabaldu genuen baina gero oso jende gutxi agertu zen, zortzi bat baino ez.

■ **Zenbat lagun behar dira taldea sortzeko?** - Hogei edo. Ni saiatuko nintzateke berriro, baina jendea animatu egin behar da.

■ **Kontaktuko kirolak biolentoak direla esaten da.**

- Kirol gogorra da kolpeak jasotzen baitira, baina polita da. Baloia pasatzeko modua, jokaldiak prestatzea, zelaiko zein puntutan zauden jokaldi bat edo besteategitea...



■ **Eta ez da beharrezkoa jokalaria sendoa izatea.** - Ez, gure taldeko onena argala eta txikia zen; oso azkarra baina. Nire postuan berriz, inportanteagoa da indarra edukitzea: melé delakoetan bultza egiteko, kolpeak emateko... Baina entsaiuak egiten dituenak, hau da, tantuak egiten dituenak bizkorra eta arina izan behar du.

■ **Zein alde dago rugbyaren eta futbol amerikarraren artean?**

- Rugbyan ez da sorbaldetan babesik jaxten ez eta buruan ere, ahoan bakarrik. Honez gain, diferentzia teknikoak ere badaude. Rugbyan gainera futbol amerikarrean baino sendoagoak dira jokalaria eta ez hain arinak. Azken hauek oso korrikalari onak dira.

■ **Rugbya ez da oso ezaguna.**

- Elgoibarren talderik balego zaletasuna sortuko litzateke baina ezer ez bada, ezinezkoa da kirol bat ezaguna izatea eta are gutxiago zaletasuna sortzea.

■ **Olinpiadak gogoko?** - Oso, futbola eta saskibaloia ikusten ditut batez ere.

• Adina: 18
• Beste kirolik? Futbola, lehen atezaina nintzen
• Zaletasunak: Kotxeak, baina oraindik ez daukat karnetik
• Piloto izatea gogoko? Bai



ARRAQUETA
AZTERKETA ZENTRUA

ZIURTAGIRI MEDIKUAK
GIDA KARNETAK ETA ARMA BAIMENAK

Arraqueta kalea, 2 bis. A (Hazienda ondoan eta ONCE parean) - Tel. 700 700 - EIBAR

ABUZTUAN
ZABALIK
1etik 9ra eta
26tik 30era

ORDUTEGIA
10,30etatik - 12,30etara

ORDUTEGIA

• **GOIZEZ:**
Astelehena eta
asteazkena 10,30-12,30

• **ARRATSALDEZ:**
Astelehenerdik ostiralera
4,30-7,30

Elgoibartarrik ez finalaurden eta finalean

Pasa den astean amaitu zen mintxetako II. Futbol & Txapelketako lehen fasea. Final zortzirenak jokatu ziren joan den zapatuan eta esan behar da ez dela Elgoibarko talde bat bakarria ere sailkatu fainal laurdenetarako. Hortaz, finalean ere ez da elgoibartarrik izango. Talderik indartsuenak Debako Xare eta Zokoa, Plaentxiko Alaitz eta Bergarako Manitu izan dira. Lau hauen artetik aterakoda aurtengo txapelduna. Gogoratu, iaz Xare izan zela irabazlea.

EMAITZAK

(Final zortzirenak)

- Pedrusko 2 - Peña Alaitz 7
- Txirinbitu 2 - Karkis 1
- Gazteak 2 - Anorthosis 3
- Xare 5 - Ez Baikorrak 3
- Manitu 5 - Lagun Toki 2
- Numancia 2 - Grassopper 1
- Lagun Onak 4 - Udaberri 0
- Zokoa 1 - La Colina 0

(Final laurdenak)

- Manitu 3 - Numancia 1
- Lagun Onak 2 - Zokoa 0
- Peña Alaitz 6 - Txirinbitu 0
- Anorthosis 0 - Xare 3

AGENDA

Larunbata, 20

11,00 3. eta 4. postuak

12,00 Finalak

Taldea	Aldeko golak	Aurkako golak	PUNT.
Pedrusko	19	8	8
Ez Baikorrak	14	9	7
Vaya Robo	13	9	6
Vultur Griphus	8	5	5
C.D. Vallecás	4	27	0

Taldea	Aldeko golak	Aurkako golak	PUNT.
Zokoa C.	23	5	12
Lagun Toki	20	4	12
Grassopper	22	5	10
O. Frantziskana	12	15	7
Berrogei Duro	6	23	3
R. de Elgoibar	8	38	0

Taldea	Aldeko golak	Aurkako golak	PUNT.
Lagun Onak	26	6	12
Karkis	23	11	12
M. Elgoibar	23	20	6
12 Monos	21	30	6
Cachi Potas	13	26	6
Thunderdome	14	27	3

Taldea	Aldeko golak	Aurkako golak	PUNT.
Xare	22	3	10
Peña Alaitz	14	9	8
Kriston Arrautzak	15	12	6
Rebel Urbi	6	14	3
Putá Mierda	5	24	1

Taldea	Aldeko golak	Aurkako golak	PUNT.
Numancia	18	9	10
Gazteak	17	15	9
La Colina	18	13	8
Lucky Luke	13	14	7
Vaso Play	19	15	6
Spartak Pitxote	9	20	3

Taldea	Aldeko golak	Aurkako golak	PUNT.
Txirinbitxu	11	0	10
Udaberri	15	10	9
Koipez Ase	7	6	4
B. La Amistad	8	15	3
Euromixto	5	15	3

Taldea	Aldeko golak	Aurkako golak	PUNT.
Manitu	32	9	9
Anorthosis	11	9	9
Txirristaka	15	11	6
Ikas Gutxi	11	17	3
Emoiok Gatza	6	27	3

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

INDUSTRIAS
LANBI, S.A.
MAKINAK NEURRIRA

Manipulazioa eta Muntaia - Makina Berezia
Bruñidorak - Kontrol dimentsionala

Jai alaiak igaro itzazue!

Donostia-Bilbo Errep. 53. km. - 20870 MENDARO - Tel. 75 50 00 Faxa: 75 51 62

Mendaroko TAXIA

Kontxi Urain

Zenbaki berria

907 57 57 28

Errumania eta Taiwan-eko dantzariak arituko dira aurtengo Nazioarteko folklore Jaialdian

Nazioarteko X. Folklore Jaialdia izango da bihar, larunbata, gaueko 22,30etatik aurrera Olaizaga Kiroldegian. Aurtengo gonbidatuak Errumaniako "Doina Bucurestiului" eta Taiwan-eko Dantza Konpainia Nazionala dira. Hauekin batera ohi bezala, Haritz Dantzari Taldeko dantzariak parte hartuko dute.

Prestakuntza lanak amaituta, gaueko 22,30etan emango zaio hasiera Elai-Alai Portugaleteko Jaialdiari esker antolatzen den Elgoibarko saioari. Kiroldegiko eskenatoki, harmaila, argiteria, etab. muntatzeko lau egunetako lana behar izan dute profesionalek eta laguntzen jardun duten dantzari, Udal Brigadako kide eta beste hainbat laguntzailerik. Urtero bezala, Angel Iriondo elgoibartarra arituko da aurkezle lanetan.

Haritz-en aldetik bakarrik, 90 dantzari inguru arituko dira bihar-

ko saioan. Dantzariak ezezik, musikariak ere izango dira: Ibon eta Kepa Lazaro adarra eta panderoarekin, Ainhoa eta Onintza Arrizabalaga trikitilariak, Herriko Dulzaineroak, Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleak eta Galiza Etxeko Tunako kideak eta Udal Txistulari Taldea. Musikariak bakarrik kasik 60 lagun elkartuko dira. Saio arrakastatsua izateko, orain arte bezala, Kiroldegia ikuslez betetzea baino ez da falta. Sarrerei dagokienean, Txankakuako dendetan eskuratutako txartelek



Goian, Errumaniarren dantza ikusgarriak. Behean, Taiwan-eko dantzarien goxotasuna.

enbaki bat dute eta egunean bertan 10.000 pta.ko bost eros-txeke zozketatu-

ko dira sarrera eskuratzen duten ikusle guztien artean.



IRIONDO, S.A.

Eraikuntza mekanikoak

Jai zoriontsuak
mendarotar guztioi

- Bidoien hustuketarako bonbak
- Erreminta makinentzako elektro-bonbak
- Engraneentzako bonbak

Mendarozabal auzoa, z/g • Tel: 75 60 47 • MENDARO

Sargoateko erromeriaren berreskurapena

Duela 30 urte egin zen azken aldiz. Ordutik ez da Sargoaten erromeriarik izan. Halere, ohitura zaharrak berreskuratzeak pena merezi duela pentsatu dute San Lorentzoko auzoko bizilagunek. Ideia sallobentearrena da eta DEBEMEN, Udala, Morkaiko Mendizale Elkarte eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte izan dituzte lagun. Denen artean Sargoateko erromeria berreskuratzeko ahalegina egin behar dute. Hilaren 25ean, Santiago eguna, ospatuko da egun osoko jai egitarauarekin.

Pello Arrieta historialariak jasotako informazioaren arabera, Sargoateko erromeria 1946tik aurrera antolatzen hasi ziren, Sallobente, Urrategi, Madarixa, Urruzuno, Elosua eta beste auzoetako baserritar bai eta kaleta-

rrak ere biltzen zirelarik uztailearen 25ean. Erromeriaren "alma mater" a Otxourtiako baserriko Bittor zena izan zen. Taberna eta kioskoa jartzen zuten eta txermen eta erroskila saltzaileak ere hurreratzen ziren tokira. Azken erromeria duela 30 urte

egin zen eta beste bi urtetan Otxourtiako lauan ospatu zuten "Santio eguna", baina gero galdu egin zen. Iaz 36 gizonezko elkartu ziren bazkaltzen "Sargoate" egunean, eta ondoren, beheko etxetxoraino joan ziren kalejiran Zabaleta eta Aitzaren doinuen alaitasunarekin.

Egitasmoa

9,00tan Madalatik Sargoatera mendi irteera

11,30tan Meza

Ostean, Meabe eta Ziarda bertsolariak eta Elgoibarko Eskolako trikitilariak.

14,00tan bazkaria.

Bazkal ostean, haurrentzako jolasak Atxutxiamaikako Begiraleekin.

Erromeria Joseba Zabaleta, Iker eta Zabaleta eta Jose M. Txillarre trikitilariekin.

Tartean Elgoibarko Bertso Eskolako jarduna.

(Oharra: Bazkaria norberak eraman beharko du. Morkaikok txozna jarriko du pintxo eta edariekin.)



Uztailearen 25ean inguruko auzuneetakoak biltzen ziren Sargoaten.

Tellabide

ITURGINTZA

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

Ondo pasa Mendaroko jaiak!

Azpilgoeta 19.
☎ 75 50 62 MENDARO

BULEGOKO ALTZARIAK



Industrialdea
13. Pabilioia
20.850 MENDARO
GIPUZKOA
Tel. (943) 75 62 70 - 71
Faxa: (943) 75 62 71



EXMAHE, S.L.

Erreminta Makinen Zerbitzu Integrala

- ▶ KONPONKETA
- ▶ MANTENUA
- ▶ C. N. ERREKONBERTSIOA
- ▶ SALEROSKETA
- ▶ BERRIA ETA ERABILIA
- ▶ AUTOMATIZAZIOA

Pol. Ind. Mendarozabal A - 16
Tel.: 75 50 93 - Faxa: 75 62 16
20850 Mendaro (Gipuzkoa)



Aitor eta Iker FREIRE GABILONDO

"Brasilen euskaldunak hotzagoak zinetela uste genuen"

20 urte ditu Aitorrek eta 18 Ikerrek. Sao Paulon bizi dira, Brasilen. Beren aita elgoibartarra da eta hemen familia dute. Orain hiru urte anaia biak udako oporrak pasatzera etorri ziren. Gustura ibili ziren eta iaz esperientzia errepikatu egin zuten. Aurtan hemen izan dira hirugarren aldiz. Beraien hizkuntza portugesa bada ere, oso ondo moldatzen dira gaztekeraz.

- Sao Paulon 17 milioi bizi zarete. Elgoibar ez al da oso txikia?

Iker: Bai, harrituta geratu ginen jende guztiak elkar ezagutzen zuela ikustean. Sao Paulon ezinezkoa da. Gu bizi garen auzoak 11.000 biztanle ditu.

- 1982an ezagutu zenuten Elgoibar.

Aitor: Bai, familia osoa etorri ginen amak elurra ikusi nahi zuen eta. Sui-zan ikusi genuen behin eta bigarren aldiz mendi batean. Egia esan gu oso txikiak ginen eta ez gara oso ondo akordatzten.

- Brasilen beti eguraldi ona al daukazue?

Iker: Nahiko ona, bai. Neguan goizean 10 gradu inguru egoten dira eta eguerdi partean 15-20. Eta hemengo sirimiriaren antzekoa izaten dugu, han garoa deitzen diogu.

- Orain hiru urte etorri zinetenean zerekin egin zenuten topo?

Aitor: Jendea oso irekia da. Este-reotipatua dago euskaldunak hotzak zaretela baina guk ez dugu horrelakorik ikusi, oso harrera ona izan dugu.

- Orain hiru urte kuadrila egin zenuten.

Iker: Bai eta oso ondo. Halere, pena bat izan zen ze, azken egunetan egon ginen eurekin eta konfidantza hartu orduko joan behar izan ginen. Iazko uda hobea izan zen.

- Jairik jai, ez?

Aitor: Bai herri ezberdinetako jaiak ezagutu ditugu. San Ferminetan ere izan gara. Guk apenas ezagutzen genituen, Hemingwayren liburu batean irakurrita edo. Brasilen ez

dago horrelakorik. Han, karnabalak dira ospetsuenak baina jaia kalean egiten da, ez hemen bezala, tabernaz taberna.

- Gustatu zaizue?

Iker: Bai. Brasilen diskotekatara joaten gara eta kotxea erabili behar da. Hemen kale bakar batean taberna mordoa daude. Bestalde, hemen ardo edaten den bezala, han garagardoa da nagusi.

- Eta musika aldetik?

Aitor: Antzekoa, bakalaoa baina suabeagoa, hemen "bacalao pastel" deitzen duzuen.

- Zer egiten du Brasilen jende gazteak?

Iker: Hondartzara joan eta surf egin, boieball-ean jolastu... eta beste askotan boloetan jolastera

joaten gara. Gainontzean, diskoteketan ibiltzen gara.

- Erraz ligatzen al da hemen?


Aitor: Errazago Brasilen, han lehenago hasten gara neska bila, 14 urtekin edo. Gainera kuadrilak mistoak dira, neskak eta mutilak batera.

- Zuen izenak arraroak izango dira Brasilen.

Iker: Bai, oso arraroak. Han normalena Marcelo, Adriano, Cristiano, Favio, Cesar deitzea da. Elgoibarrera etorri ginenean Iker edo Aitor entzuten genuen bakoitzean gutaz ari zirela uste genuen.

- Biziko al zinatekete Elgoibarren?

Aitor: Printzipioz bai nahiz eta gure familia, lagunak eta bizitza Brasilen dauden.



Salerosketak

- ❖ FRIGORIFIKO BAT, LABADORA eta 1,20ko OHEA, mesilla eta sarrerako takiloia ispilu eta guzti saltzen ditut.
☎ 74 24 57 Maria
- ❖ MOBILETE Coma Harvard motor beltza saltzen dut, berri-berria. 50.000 pta.
☎ 75 10 01 Jabi
- ❖ SEAT IBIZA SS-AG saltzen dut, oso egoera onean. Beti egon da garajejan.
☎ 74 10 59
- ❖ IDAZTEKO MAKINA elektronikoa saltzen dut. 20.000 pta.
☎ 74 10 59
- ❖ 52 neurriko karrerako BIZIKLETA saltzen dut.
☎ 74 31 65
- ❖ Bi KATU PERTSIAR salgai.
☎ 74 30 29 - 74 21 60
- ❖ TXISTUA eta KLARINETEA saltzen ditut.
☎ 74 32 94 6etatik aurrera
- ❖ PIANO BAT saltzen dut. Egoera oso ona.
☎ 74 15 56
- ❖ Haurrentzako MOUNTAIN BIKE salgai. Prezio ona.
☎ 74 10 80 (arratsaldeko 7etatik aurrera)
- ❖ ARRAINDEGIA traspasatzen da Plaza Merkatuan.
☎ (94) 683 14 42
- ❖ POSTU BAT traspasatzen da Plaza Merkatuan.
☎ 74 36 38

Bestelakoak

- ❖ AUTOKARABANA bat alokatu nahi genuke abuztuan oporretan joateko.
☎ 74 41 12 Maite
- ❖ Uztailean eta abuztuan DONOSTIARA GOIZEZ joan eta arratsaldez bueltatzeko jendea behar da.
☎ 74 40 62 Agustín

Etxebizitzak

- ❖ ETXE BAT SALGAI. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komuna. Prezio interesgarria.
☎ 74 25 01
- ❖ PISU BAT alokatzen dut ALCOCEBER- LAS FIARTES hondartza ondoan. Telebista eta labadorarekin. Uztailean eta il
☎ 74 22 08
- ❖ Apartamentua alokatzen dut BENIDORM-en. Hondartzako lehen ilaran. Torre-Levante eraikuntza, piztina, parking, labadora eta telebistarekin.
☎ 76 46 61 / 74 16 57
- ❖ ETXE BAT SALGAI SANTA ANA kalean. Hiru gela, egongela, bi komun eta sukaldea ditu. Prezio onean.
☎ 86 12 47 / 74 35 86
- ❖ PISUA SALGAI SAN PEDRON. Hiru logela, sukalde-jangela eta bainua.
☎ 74 25 94
- ❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDAn. ☎ 74 15 22

Partikularrak

- ❖ KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut udan. OHO, BBB, REM eta ingelesa.
☎ 74 15 82 Eduardo
- ❖ Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu udako lanetan laguntzeko eta iraileko examinak prestatzeko. Baita, armonia, transporte eta repentizazioko klaseak.
☎ 74 04 11 Silbia
- ❖ Enpresarialesen lizentziatuak KONTABILITATE eta BALANTZE ANALISIAri buruzko partikularrak emango ditu udan Eibarren.
☎ 12 16 38 Ainhoa

Lana

- ❖ KAMARERA BAT behar da abuzturako. Interesatuak bidali kurrikulum-a 130 Posta Kutxatilara, Soraluze.
- ❖ Neska euskalduna urte guztian eskaintzen da ETXEKO LANAK, UMEAK EDO NAGUSIAK ZAINTEKO. Kotxearekin.
☎ 75 17 79
- ❖ HAUR BAT zainduko nuke UZTAILEAN. ☎ 74 17 61
- ❖ GONAK JOSTEN ditut neurri eta edozein motatako konponketak egiten. Zaharra ekarri eta berdina egingo dizut.
☎ 74 21 40 Konsuelo

Agurrak

- ❖ 9 hilabete amaren sabelean egon ondoren, Jone-k kaixo esan dizue hiruroi. Zorionak Rafa eta Lourdes, eta Nagore, ea ondo zaintzen duzun ahizpatxo txikia. Elgoibarko Izarrako lagunak.
- ❖ Hilaren 15 eta 16an 12 urte bete dituzten Amaia Madariaga eta Nerea Lendinezi, zorionak beren lagun guztien partez.
- ❖ Uztailean 18an urteak bete zituen Iñigori zorionak bere familiaren partez.



OSASUNA

- Anbulategia:
 Larrialdiak.....461111
 Txanda hartzeko.....743354
 Planning-a742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 Gurutze Gorria.....743864
 Mendaroko Ospitalea756264
 Drogomenpekotasun Z.741008
 Odol Emailak.....743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442
 PESA (Eibar).....102131
 Taxi geltokia.....740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
 Udal Kirol Patronatua744415
 Kultura Zerbitzua742158
 Mendaroko Udala756100
 Ongizate zerbitzua...743736
 Udaletxea741050
 Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

- Caritas740142
 Elgoibarko Izarra.....741626
 Kontsumo Bulegoa ...743088
 Liburutegia743525
 Musika Eskola742145
 Mintxeta744315
 Parrokia740842
 Polikiroldedia741361
 Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
 Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
 Herri Eskola.....74 08 79
 I.M.H.74 41 32
 Institutua74 02 67
 Ikastola74 44 41
 L.H.I.....74 44 80
 Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
 El Diario Vasco74 40 73
 El Mundo74 27 59
 El Correo Español...74 10 82
 Egin.....10 84 21
 Zazpiki irratia74 34 74

OSTIRALA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“El primer caballero”

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

LARUNBATA

**19,00 FOLKLORE JAIALDIKO
DANTZARIEI ONGIETORRIA**

✓ Udal Areto Nagusian

**22,30 NAZIOARTEKO FOLKLORE
JAIALDIA**

✓ Olaizaga Kiroldegian

Antolatzailea: Haritz eta Udala

ASTEAZKENA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Goldeneye”

OSTEGUNA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Waterworld”

OSTIRALA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Broken arrow-Alarma nuclear”

LARUNBATA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Batman II”

ASTEARTEA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“La isla de las cabezas cortadas”

ASTEAZKENA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Apolo XIII”

txandak

OKINDEGIAK:

UZTAILA

21, igandea: DOÑA MERCEDES

25, igandea: EIZAGIRRE

28, igandea: FOTERO

31, igandea: ZABALET

ABUZTUA

4, igandea: FOTERO

11, igandea: ZABALET

15, osteguna: FOTERO

18, igandea: IDARRAGA

24, igandea: EIZAGIRRE

25, igandea: IDARRAGA

1, igandea: EIZAGIRRE

FARMAZIAK:

DATA

EGUNEZ

GAUEZ

UZTAILA

20, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
21, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
22, astelehena:	Yudego	Yudego
23, asteartea:	Yudego	Yudego
24, asteazkena:	Yudego	Yudego
25, osteguna:	Yudego	Yudego
26, ostirala:	Etxeberria	Yudego
27, larunbata:	Etxeberria	Yudego
28, igandea:	Etxeberria	Yudego
29, astelehena:	Bidasolo	Anduaga
30, asteartea:	Bidasolo	Anduaga
31, asteazkena:	Bidasolo	Anduaga

ABUZTUA

1, osteguna:	Bidasolo	Anduaga
2, ostirala:	Bidasolo	Anduaga
3, larunbata:	Bidasolo	Anduaga
4, igandea:	Bidasolo	Anduaga
5, astelehena:	Ormazabal	Zabaleta
6, asteartea:	Ormazabal	Zabaleta
7, asteazkena:	Ormazabal	Zabaleta
8, osteguna:	Ormazabal	Zabaleta
9, ostirala:	Ormazabal	Zabaleta
10, larunbata:	Ormazabal	Zabaleta
11, igandea:	Ormazabal	Zabaleta
12, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
13, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
14, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
15, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
16, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo
17, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
18, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
19, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
20, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
21, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
22, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
23, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal
24, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
25, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
26, astelehena:	Bidasolo	Anduaga
27, asteartea:	Bidasolo	Anduaga
28, asteazkena:	Bidasolo	Anduaga
29, osteguna:	Bidasolo	Anduaga
30, ostirala:	Ormazabal	Anduaga
31, larunbata:	Ormazabal	Anduaga



Gabi
JATETXEA

Nafarroa plaza - ELGOIBAR
Tel. 74 12 30

TXIKI EGUNEAN menu bereziak kuadrilentzat.

Egin erreserba lehenbailehen.

Uztailaren 27tik abuztuaren 22ra itxita.

Opor Zoriontsuak pasatu!!

SARGOATEKO ERROMERIA

Uztailak 25, osteguna



EGITASMOA

9,00etan Madalatik Sargoatera mendi irteera Morkaikok antolaturik.

11,30etan Meza.

Ondoren, Meabebasterretxea eta Ziarda bertsolarien saioa.

14,00etan Bazkaria*.

Bazkal ostean Haurrentzako Jolasak Atxutxiamaika Begirale Taldearekin.


Erromeria: Joseba Zabaleta, Iker eta Zabaleta eta Txillarre trikitilariekin.

***OHARRAK:** Noberak bere bazkaria eraman behar du eta Morkaikok pintxo eta edariak salduko diren txozna jarriko du.
ANTOLATZAILEAK: Sallobente auzoko bizilagunak. **LAGUNTZAILEAK:** Debemen, Udala, Morkaiko eta Elgoibarko Izarra.

PROMOCIONES MENDARROZABAL S. L.

450 m²ko lorategia duten
BI ETXE UNIFAMILIAR
eraikiko ditugu Mendaron

☎ 76 27 58



IBAR-TXIKI



EDARI BANATZAILEA ☎ 74 05 03



ARACO ardoen kalitateak errekonozimendu berri bat jaso du.
"Guía Peñín de los Vinos de España" argitalpen entzutetsuak 80 puntu eman dizkio ARACO beltzari 100 punturen gainean.

